

DEFINIZIOAK

ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN- HONDAKINEN ESTADÍSTIKA (090219)

Hondakina

Edukiztaileak bota duen edo botatzeko asmoa edo betebeharra duen edozein substantzia edo objektu (22/2011 Legearen 3.a artikulua).

Eraikuntza- eta eraispén- hondakina

Hondakinei buruzko 22/2011 Legean jasotako hondakinaren definizioa betez, eraikuntza- eta eraispén-obra batean sortzen den edozein substantzia edo objektu.

Hondakinén kudeaketa

Hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzea da, jarduera horiek zaintzea barne, bai eta zabortegiak itxi ondoren mantentze-lanak egitea ere, negoziatzaile edo agente gisa egindako jarduerak barne (22/2011 Legearen 3.m artikulua).

Hondakinén kudeatzailea

Hondakinén kudeaketa osatzen duen edozein jarduera egiten duen pertsona edo erakundea da, publikoa zein pribatua, baimen edo komunikazio bidez erregistratua, hondakinén ekoizlea izan edo ez (22/2011 Legearen 3.n artikulua).

Lizentzia behar duten obrak

Obra-lizentzia lortzea beharrezkotzat duen eraikuntza, instalazioa edo obra da. Horretarako, eraikuntza-proiektu oso bat aurkeztu beharko da, teknikari eskudun batek sinatua eta dagokion elkargo profesionalean ikus-onetsia. Oin berriko obra, birgaitze-obra edo eraispén-obra izan daiteke.

Obra zibila

Eraikuntzaz bestelako azpiegitura-obra oro da, kolektibo edo publikoki erabiltzekoa. Lau kategoriatan banatzen da: garraioa, urbanizazioa, hidraulikoak eta ingurumena.

Obra txikia

Etxebizitza partikular, saltoki, bulego edo zerbitzu-sektoreko higiezin batean eraikitze edo eraisteko obra, teknika errazekoa eta eraikuntza- eta ekonomia-garrantzi gutxikoa, bolumena, erabilera, erabilera komuneko instalazioak edo etxebizitzaren eta lokalen kopurua aldatzen ez duena, eta tituludun profesionalek sinatutako proiekturik behar ez duena (EAEko 112/2012 Dekretua).

Obra publikoa

Legearen ondorioetarako, obra publikoa da funtzio ekonomiko edo tekniko bat betetzera bideratutako ingeniari-txosten zibileko lan batzuen emaitza, ondasun higiezin bat xede duena; obra horiek oin berriko obrak nahiz eraldaketakoak, zaharberritzekoak edo eraberritzekoak izan daitezke. Azken kasu horietan, obra publikoa izango da, baldin eta lanen multzoak funtsezko aldaketa eragingo duen esku-hartze osoa edo partziala badu. Obra publikoaren kontzeptutik kanpo geratzen dira eraikuntza-obra bat emaitza duten lanak eta urbanizazio-obra. Azken obra horiek hirigintza-legerian xedatutakoaren arabera arautzen dira (3/2007 Legea, uztailaren 4koa, Herri Lanei buruzkoa).

Hondakinen tipologia: EHZ kodeak

Bat dator Europako Hondakinen Katalogoaren araberrako sailkapenarekin (EHZ edo EHK). Hondakin arriskutsuen zerrenda izartxo batekin adierazten da, eta Europako Hondakinen Katalogoaren laburpena da (Europako Hondakinen Katalogoa EHK, Batzordearen maiatzaren 3ko 2000/532/EE Erabakiak onartua; erabaki hori aldatu zuten urtarrilaren 16ko 2001/118/EE Erabakiak, urtarrilaren 22ko 2001/119/EE Erabakiak eta Batzordearen uztailaren 23ko 2001/573/EE Erabakiak).

Birziklatzea

Hondakinen materialak berriro produktu, material edo substantzia bihurtzeko egiten den balorizazio-jarduera oro da, bai material horien jatorrizko xedearekin, bai beste edozein helbururekin. Material organikoaren eraldaketa barne hartzen du, baina ez balorizazio energetikoa, ezta betelanak egiteko edota erregai gisa erabiliko diren materialen eraldaketa ere (2011/22 Legearen 3.t artikulua).

Ezabatzea

Balorizazioa ez den beste edozein jarduera da, baita jardueraren bigarren mailako ondorioa substantzien edo energiaren aprobetxamendua denean ere. I. eranskinean ezabatze-eragiketen zerrenda zehatza jasotzen da (22/2011 Legearen 3.v artikulua).

Hondakin arriskutsua

III. eranskinean zerrendatutako ezaugarri arriskutsuetako bat edo batzuk dituen hondakina da, eta Europako araudian edo Espainia partaide den nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoaren arabera Gobernuak onar dezakeena, bai eta ezaugarri horietako hondakinak eduki dituzten ontziak ere (22/2011 Legearen 3.e artikulua).